# Ikasturte Hasierako Ebazpenak

2026ko ekainak 29

- Pasa den astean **Ikasturte Hasierako Ebazpenak argitaratu zituen Hezkuntza Sailak, aldebakarrez,** azken hilabeteetan duen dinamikarekin jarraituz.
- Mahai Negoziatzaile baterako sindikatuoi honen inguruan hitz egiteko eta ekarpenak egiteko eskatu bazitzaigun ere, **ekarpen gehienak ez dituzte ebazpenean jaso,** eta berriro ere ez da benetako negoziazio bat eman.
- Gainera, **akats matematiko larriak ditu jardunaldi murriztuetako orduetan.**
- **Honakoak salatu eta aldatzeko exijitzen dio LABek Hezkuntza Sailari,** besteak beste, puntu hauetan:

| **HH-LH** EBAZPENA | **DBH** EBAZPENA |
|---|---|
| • **3.7 puntua:**<br><br>**-** Erlijioari dagokion puntu hau kentzea edota gutxienez klaseko ikasle kopuru minimoa ezartzea. | • **3.3.2 puntuan:**<br><br>- Jasota geratzea "irakasleek eskolaz kanpoko jarduerak edo errefortzuak burutu behar badituzte Hezi+ programaren baitan, ordu hauek irakastordu bezala zenbatuko dira." |
| • **5.1.4 puntuan:**<br><br>- Jardunaldi erdian 10 edo 11 irakastordu izan behar dira.<br><br>- 5/6 jardunaldian 20 irakastordu azaltzen dira.<br><br>- Jardunaldi osoan 21 irakastordu badira, 5/6 jardunaldian 17'5 ordu izan behar dira. | • **3.5.4 puntuan:**<br><br>- Curriculum Aniztasuneko Programan ikasleen %15 gainditzeko aukera zabaltzea. |
| • **5.1.5 puntuan:**<br><br>- EHI irakasleen funtzioak era argiagoan definitzea. | • **3.6.3 puntuan:**<br><br>- USaPean Euskal Curriculuma ardatz hartzea gehitzea. |
| • **6.5.1 puntuan:**<br><br>- Segurtasun Laguntzaile dotazioa eskolaren tamainaren arabera handiagoa izatea. | • **3.7 puntuan:**<br><br>- Erlijioari dagokiona, kentzea edota gutxienez klaseko ikasle kopuru minimoa ezartzea. |
| | • **5.3 puntuan:**<br><br>- 2/3 jardunaldian eskolan egon beharreko denbora 15 ordu izatea.<br><br>- 1/3 jardunaldian eskolan egon beharreko denbora 8 ordu izatea.<br><br>- Formakuntzarako denborak jardunaldi murriztuetan definitzea.<br><br>- Osasunagatik edo adinagatik jardunaldia murriztu arren zaintza kopuru muga mantentzea. |
| | • **6.6.1 puntuan:**<br><br>- Segurtasun Laguntzaile dotazioa eskolaren taimainaren arabera handiagoa izatea. |